

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Lehen esan dugun bezala, webgune bat izango dugu. Bertan, atala bat dago “Kontaktua” izenarekin. Honen bidez, gure bezeroekin harremanak hasi ahal ditugu. Horrez gain, hotelekin edo jatetxeekin bilerak izateko edota akordioak sinatzeko bazkideetako bi joango gara, gure ustez badaude gaiak pertsonalki tratatu behar direnak.

Salmentak egin baino lehen, hainbat hotelei eskainiko diegu zerbitzua eskaintza handiekin eta zenbait erakusgarriekin gure zerbitzua kontratatzea oso ideia ona dela ikus dezaten. Salmenta egin eta gero gure harremana bezeroekin ahalik eta estuagoa izango da, arazoak ziztu-bizian konponduko ditugu eta zenbat eta diru-sarrerak handiagoak izan hotel batean eskaintza gehiago eskainiko diogu.

